



LAG-AK BERRIKUSTEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PLANA, “AURRERAPENA” (2015-2016) DOKUMENTUA EGIN ARTE

I. ESPARRU OROKORRA

Jaurlearitzako Gobernu Kontseiluak 2015eko uztailaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, LAGak berrikusteko prozedurari ekitea ezartzen da. Gainera, berrikusteko prozeduraren denbora-plangintza jasotzen du, administrazio-izapideak eta urtero azaroan izaten den Euska Hiria Kongresua datetan bat etortzeko.

Horrela, aurreikusitakoari jarraiki, honako hau aurkeztuko da: 2015eko azaroko Euskal Hiria Kongresuan, “Oinarrizko Dokumentua”; 2016ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan, “Gidalerroen Aurrerapena”; 2017ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan, hasierako onspena; eta, 2018ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan, LAGen berrikuspenaren behin betiko onspena.

Administrazio-izapideak eta Euskal Hiria Kongresua denboran bat etortzeko helburua da berrikuspen prozeduraren barruan prozesu parte-hartzailea sartzea; horrela, kongresu horrek foro gisa jardungo du, izapidetzearen baterako garapenerako.

II. DENBORA-ESPARRUA

Jarduteko modu horrek LAGak berrikusteko prozedurarako prozesu integral parte-hartzailearen kudeaketan berrikuntza eta ikaskuntzaren maila handia dakarrenez, parte hartzeko planak, gaur egun, berrikusteko prozeduraren lehen fasea baino ez du hartzen bere gain, hau da, “Oinarrizko Dokumentua” aurkeztetik 2016ko azarorako aurreikusita dagoen “Gidalerroen Aurrerapena” egitera arte.

III. PARTAIDETZA EREMU INSTITUZIONALEAN

Aurreikusita dago elkarlan-ildoak aurkeztu eta abian jartzea, honako foro instituzional hauetan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea: ponentzia teknikoa egitea
2. Lurralde Politikarako Aholku Batzordea
3. Legebiltzarra, Ingurumen eta Lurralde Politikako Batzordea
4. Batzar Nagusiak
5. Aholkularitzako kide anitzeko organoak, hala nola Ingurumeneko Aholku Batzordea, Naturzaintza, Landaberri, Urdaibaiko Patronatua eta Euskadiko Garraio Agintaritza.
6. Ekonomia eta Gizarte Kontseilua

7. EHUren “Paisaia kulturala, Lurraldea eta Ondarea” UNESCO katedra eta unibertsitate eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketarako den EHUren *EHUgune* foroa.

Bilera-egutegia ez ezik, horien emaitzak ere behar bezala zabalduko dira.

IV. PARTAIDETZA EREMU SOZIALEAN

Eremu sozialeko partaidetza pedagogia eta zabalkunderako ekintzetan oinarrituta egituratuko da. Ekintza horiek honako hauetan parte hartzea erraztuko dute: lurralde-antolamenduaren esparrua, tresna telematikoen bidezko parte-hartze birtualaren erabilera eta kudeaketa, eta aurrez aurreko topaketak egitea (eremu funtzional eta lurralde historikoen mailan, batez ere).

LAGak eta lurralde-eredua berrikusteko prozesu parte-hartzailea elkarren jarraian eta lankidetzan eraikitzen duten ekintza eta ekitaldi interkonektatuen ibilbidea planteatzen da. Planteamendu zehatz hori (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/lag_berrikuspena_2015) etengabe ari da garatzen eta egokitzen.

Adierazi beharra dago berrikuspen planteamendu parte-hartzaile hori “Paisaje Transversal” enpresak (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/lag_berrikuspena_2015) egindako lanean oinarritu dela. Enpresa hori Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua (osoko parte-hartze prozesu batean oinarritutakoa) diseinatzeko laguntza teknikorako kontratuaren adjudikazioduna da.

V. GARDENTASUNA

Parte hartzeko prozesu osoan eta horren trazabilitatean gardentasuna bermatze aldera egingo da lan.

VI. BEREHALAKO ETA ETENGABEKO PARTAIDETZA

LAGak berrikusteko prozesu parte-hartzailean berehala eta une oro hartu ahal da parte, hala nola Facebook bidez (<https://www.facebook.com/lurraldea>) eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko duen Irekia izeneko kanalaren bidez (<http://bit.ly/1QtTHjU>).

2015eko azaroa